



Bergarako
Udala

Bergaran, bi mila eta hogeita bateko martxoaren 1ean, ondorengoak

BILDU DIRA:

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkaritzan, M^a Concepción Ugalde Izeta udaleko idazkariaren laguntzarekin.

Bestaldetik, Iratxe Esnaola Arribillaga, IAN zenbakiduna, Olaso Dorrea Fundazioko lehendakaria eta Bergarako San Pedro kalea, 2an helbideratuta dagoen Olaso Dorrea Fundazioaren izenean.

Bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu diote elkarri eta honako hau

ADIERAZI DUTE



Olaso Dorrea Fundazioa da Olaso Dorrea jauregiaren jabea, eta jauregiak monumentu-izendapena du. Fundazioak bere ondarea ezagutzera eman nahi du, dorretxea bisitariei irekiz.

2. Bergarako Udala ahalegin handia ari da egiten herrian turismoa bultzatzeko eta, horretarako, herri honek duen ondarea ahal den heinean erakusgai jarri nahi du eta bisitatzeko aukera eskaini.
3. Gauzak horrela, bi aldeek artean adostu da *Laboratorium* museoa ikusteko aukerarekin batera Olaso Dorretxean bisita gidatua ere egiteko aukera ematea eta bi aldeek betebeharrak hitzarmen batean jasotzea.
4. Era berean, kontuan izanda bi aldeek nahi dutela Euskal Herriari, bere kultura, hizkuntza, historia eta etorkizunari bizitza osoko lana eskaini dioten bergarar zein bergarar gaindikoko herritarrek omentzea, MONZON-GANUZA SARIA sortzea erabaki dute, eta sari horretan bi aldeek parte-hartzea hitzarmenean jasotzea adostu dute.

Hori dela-eta, bi aldeek ondorengo klausulak hitzartu dituzte:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Olaso Dorrea Fundazioak bisita gidatuei dagokienean honako konpromisoak hartzen ditu:

- Eraikinaren bisita gidatuak antolatzea. Hilean hiru bisita eskainiko ditu eta horretarako egunak bi aldeek artean adostuko dira.

Hiru bisita horietatik bi egun berean egingo dira, bi txandetan. Goizeko 10:15etan euskaraz eta 12:00etan gazteleraz; eta beste egun batean hirugarrena, euskaraz.

- Bisita finko horiez gain, herritarren eskaerak ere bideratzeko aukera egongo da.
- Bisita horien iraupena ordu t'erdi ingurukoa izango da. Bertan eraikina bisitatzeaz gain bideo bat erakutsiko da, eta bisita gidatuaren gidoia bi aldeen artean adostuko da.
- Bisita gidatu horiek egiteko pertsonala Fundazioak jarriko du, eta Fundazioa ere izango da eraikinean bisita egitean bisitariek jasan ditzaketen kalteren erantzule.
- Bisita gidatuetan gehienez ere hamabi (12) pertsonak hartu ahal izango dute parte. Dena den, COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurrien ondorioz posible da pertsona kopurua murriztu edo bisitak bertan behera utzi behar izatea.
- Bisitagatik bisitariei ezer ez kobratzea.

BIGARRENA.- Bergarako Udalak bisita gidatuei dagokienean honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- Udalak *Laboratorium* museoa ikusteko aukerarekin batera eskaintzea Olaso Dorrea Fundazioak antolatutako bisita gidatua egiteko aukera, une bakoitzean ordenantza fiskalean bisita konbinatuentzat aurreikusitako prezio publikoan, eta adierazita Olaso dorretxera egiten den bisitaren antolatzailea Olaso Dorrea Fundazioa dela.

Bi aldeen artean adostuko dira bisiten egutegia eta bisitak gestionatzeko beharrezkoa izan daitekeen informazioa elkarrekin trukatzeko era.

Sarreraren salmentarekin lortutako dirua Bergarako Udalarentzat izango da. Fundazioak ez dio beste kopururik ordainduko Udalari.

- Bisita gidatuak egin ahal izateko 2020an Fundazioak egindako inbertsioei aurre egiteko, 20.000 euroko dirulaguntza ematea. Halaber, 2021etik aurrera, eta hitzarmena indarrean dagoen bitartean, urteko 20.000 euroko dirulaguntza ematea Fundazioari bisita horien gastuei aurre egiteko, eraikinean bisitak egin ahal izateko segurtasun-neurriak hartzeko, eraikina, instalazioak eta ondarea bisitatzeko moduan mantentzeko, bai eta horren inguruan sor daitezkeen jarduerak laguntzeko.
- 2021eko dirulaguntzaren kontura 12.000 euro ordaintzea (aurreikusitako dirulaguntzaren % 60) 2021eko lehenengo hiruhilekoan, eta dirulaguntzaren beste % 40a dirulaguntzaren likidazioa onartutakoan.

Bigarren zatia ordaintzeko, eskaerarekin batera honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

1.- Diruz lagundutako ekintzen memoria.

2.- Emaiza ekonomikoaren memoria, hau da, zerrenda sailkatu bat, jardueraren gastuak eta inbertsioak jasoz, eta bertan zehaztu beharko dira hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, horrelakorik balego, ordainketa-data; eta bertan, era berean, zehaztu egin beharko dira diruz lagundu den jarduera hori finantzatzeko izan





Bergarako
Udala

dituzten beste diru-sarrera edo dirulaguntzak, adierazita bakoitza zenbatekoa izan den eta nondik etorri den. Memoria erreala dela adierazten duen zinpeko aitortpena gehituko zaio, Fundazioko ordezkariak sinatuta.

3.- Faktura, agiri edo errezioben kopiak eta horien ordainketa-agirienak ere bai.

4.- Jasotako beste dirulaguntzen agiriak edo, dirulaguntzarik jaso ez bada, zinpeko aitortpena.

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, hurrengo urteetan ere dirulaguntzaren ordainketa era berdinean egitea.

- Hitzarmena sinatu ondoren, 2020an egindako gastuak justifikatzeko bigarren klausula honetako aurreko puntuan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu eta gehienez ere bi hilabeteko epean 2020ko dirulaguntza ordaintzea.
- COVID-19arengatik bisita gidatuak murriztu edo bertan behera geratu behar badira, Bergarako Udalak neurriak hartuko ditu izena eman dutenei abisatzeko, baina ez dio inolako kalte-ordainik ordainduko Fundazioari.
- Baliabide hau Udalaren kanal turistiko eta kulturaletatik hedatzea, adierazita bisita-antolatzailea Olaso Dorrea Fundazioa dela.



HIRUGARRENA. - MONZON-GANUZA SARIAri dagokionez ondorengo konpromisoak hartuko dituzte:

Monzon-Ganuzaren sariaren bidez Euskal Herriari, bere kultura, hizkuntza, historia eta etorkizunari bizitza osoko lana eskaini dioten bergarar zein bergarar gaindiko herritarrek omenduko dira.

- Saria erabakitzeko unean, kontuan izango dira Telesforo Monzonen eta Josefa Ganuzaren baloreak, hala nola herri honekiko maitasuna, euskarari eta kulturari emaniko lehentasuna, Nafarroaren garrantzia euskal historian edo/eta batasunaren balioa.

- Saria urtero banatuko da, Telesforo Monzonen heriotza-datan (martxoak 9) edo horren inguruan. Sariduna nor den gutxienik bi aste lehenago jakinaraziko da jendaurrean.

- 2021ean saria nori eman Udalaren eta Olaso Dorrea Fundazioaren artean adostuko bada ere, aurrerantzean sariduna izendatzeko BATZORDE bat osatuko da. Batzordea bost (5) kidek osatuko dute (bik Bergarako Udala ordezkatzeko dute eta beste hirurak fundazioak izendatuak).

Batzorde horretan Bergarako Udala ordezkatzeko dute alkateak eta Herritarren batzordeburuak.

- Batzordeak, urtero, urte horretako urtarrilaren 31rako erabakita izango du saria nori eman, batzordeko edozein kidek aurkezturiko izenen artean. Erabakitzeko unean, artikulua honetako lehen puntuan alpatutako irizpideak izango dira kontuan.

- Saria sinbolikoa izango da, eta Monzonen balioak ordezkatzeko dituen obra artistiko bat izango da. Saria euskal artista berriak sustatzeko erabiliko da.

- Urtero artista berri bati eskainiko zaio saria diseinatzeko aukera, horrela saria bera euskal artista berrien sustapenerako ekimen bihurtuko delarik, modu horretan belaunaldien arteko zubi-lana eraikiz.
- Batzordea izango da artista eta horren obra aukeratuko duena. 2021ean erabaki hori Olaso Dorrea Fundazioaren esku geldituko da.
- Euskal artista berriek beren obraren berri batzordeko kideei emateko, Olaso Dorrea Fundaziora jo beharko dute saria eman aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen.
- Obra artistikoa ordaindu egingo da, 3.500 euroko diru-kopuruaz. Horietatik 2.500 euro Bergarako Udalak jarriko ditu eta beste 1.000 euroak Olaso Dorrea Fundazioak. Bergarako Udalak berari dagokion zatia Fundazioari ordainduko dio, Fundazioak emandako kontuan, urte bakoitzeko otsaila amaitu baino lehen.
- Sari-ematea Bergaran egingo da.

LAUGARRENA.- Hitzarmen honetan jasotakoa gauzatzeko, bi aldeek ordezkariak izendatuko dituzte eta kontaktatzeko moduak zehaztu.

BOSGARRENA.- Hitzarmen hau indarrean egongo da 2022ko abenduaren 31ra arte.

SEIGARRENA.- Hitzarmen hau Zuzenbide Zibilak agintzen du, dirulaguntza izan ezik. Dirulaguntzari dagokionean, hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian honako hauek aplikatuko dira: Diru-ekarpenak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Estatuko Legea, lege hori garatzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta Bergarako Aurrekontuetako Udal Araua.

Eta dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean hirukoiztuta sinatzen dute bi aldeek, nik, idazkariak, guztia ziurtatzen dudalarik.

Izpta.: Gorka Artola
Bergarako alkatea



Izpta.: Iratxe Esnaola Arribillaga
Olaso Dorrea Fundazioko lehendakaria




Izpta.: M^a Concepción Ugalde
Bergarako Udaleko idazkaria